

# Utopiaren itzalak





**Asel Luzarraga** | (Bilbo, 1971). Enpresa ikasketetan diplomaduna eta Euskal Filologian lizentziaduna da. Hainbat urtez irakasle lanetan ibili ostean, egun itzultzailea da. 2003. urtean *Hamaika ispilu ganbil* (Labayru) argitaratzeak eta VI. Igartza beka eskuratu izanak idazketa serio hartzera bultzatu zuten. Geroztik *Karonte*, *Eleberria lantzeko gida* (Antton Irustarekin batera), *Mozorroaren xarma* eta *Abaraska* liburuak argitaratu ditu.

Asel Luzarraga

# Utopiaren itzalak



LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2010eko iraila

© Creative Commons:  
Aitortu-Ez komertziala-Lan  
Eratorririk Gabe 2.5  
© Txalapartak

Editorial Txalaparta e.m.l.  
Navaz y Vides 1-2  
78. Posta kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 70 39 34  
Fax 948 70 40 72  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com



AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Esteban Montorio

MAKETAZIOA  
Monti

INPRIMAKETA  
RGM  
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.  
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN  
978-84-8136-591-7  
LEGE GORDAILUA  
BI. 2.685-10



Vaneri, nor naizen gogorarazi  
eta bizi berriaren hastapena  
aurkitzen laguntzeagatik

Unerik latzenetan  
maitasunaren eskuzabaltasuna  
erakutsi didazuen guztioi

Herioa erlojuetan ezkututzen da.

ENRIQUE VILA-MATAS

*(Bidaia bertikala)*

AITARIK INOIZ IZAN EZ DUGUNONTZAT, ama da teilatua. Isuri bakarreko teilatua. Itzala beti alde berean, itoginak ere zulo berberetatik. Eta itogin horiek asko edo gutxi izan, itzala zabala zein estua, aterpe ematen digun beste hegaztegirik ez dugu, ez gara beste inon seguru sentitzen. Horrez gain, anaiatzat zaldia aukeratu genuenontzat, haren trostatik urruntzea, neurri batean, Cainena egitea da, istorio horretan Cain bakarra zaldia bera izan arren. Horregatik, beti gertzen da erruduntasun sentipen txiki bat izioturik, beti atzera egin, barkamena eskatu eta hil dugun anaia berpizteko tentazioa. Berak hil bagintu damurik txikiak ere aztoratuko ez zukeela barneratzea da balaztetariko bat. Bestea, garrantzitsuena, ezagutarazi zizun infernura itzultzea baino, herioa bera nahiago izatea.

Ez zegoen bakarrago sentitzerik. Albistea ezin zen une txarragoan iritsi. Josuk nahiago zukeen irudimenik ez izan, baina bere alde masokistenak behin

eta berriz zekarkion irudi bera burura: ama bainuontzian, marea gorriak harrapatuta, biluzik, besoko zainak irekita, bizi zantzu guztiek alde eginda. Ez zioten esan zelan egin zuen bere buruaz beste; zentroko zuzendariak bazekien sentiberatasuna zer zen, eta primeran neurtu zituen hitzak. Euriak hamar bat minutu lehenago utzi zion Dead Kennedysen erritmoan jotzeari, eta orain malko distiratsuz estalita agertzen zen baratzea. Goragalea ematen zion baratzeak: zerrion alaitasunak adarjotzea zirudien, aurpegira egiten zion barre. Bere eskuak bizia lorarazteko gai zirela ikasi zuen baratze hartan. Milimetroz milimetro ikusi zituen lekak hazten, tomateak egunez egun gorritzen, laguntza ezinbestekoa gorputzak eskatzen zion auto-suntsiketa ahazteko. Geroago, aitzakia izan zen egonaldia luzatzeko. Hangoa bukatuz gero, nora jo? Auzora? Betiko lagunengana? Hondoratzen lagundu ziotenen ondora? Txirula hartu eta alderrai ibiltzera?

Galdera geroratuek ez dute betarik galdu, eta bombardaketa gupidagabeari ekin diote. Orain zer? Amak hemendik at nahi zaitu, baina garbi. Garbi hago, baina barruan hagoelako. Ez duzu berriro tximinoa izan nahi, ez duzu iritsi gura zeure burua hilda ikusi nahi izatera. Salbatu haute eta hik ez duk ama salbatu; beragandik urrun igarotako denbora zakarrontzira botako al duk?

Leihoak alaitasun guztia galdu zuen, tunel sakon batean sartu balira legez, eta euriak bere bateria soloari ekin dio berriro. GBH oraingoan. Hobeto horrela. Zer ruak ere negar egin diezaiola amari. Nire orde. Zerga-

tik ez dago malkorik nire barruan? Negar egiteko go-  
goak urdaila iraultzen zion, baina, hala ere, bazekien  
lehenago egingo zuela oka, begiak bustitzera utzi bai-  
no. Logelatik irtenez gero, elkartasun keinurik ez  
zuen faltako. Horrexek egiten zuen gainezka zentro  
hartan: elkartasuna. Ez zuen holakorik beste inon to-  
patu. Familian ez, argi eta garbi. Kaleko lagun arte-  
an are gutxiago. Kanean hobe zen ondokoa putzu ba-  
tean itotzen ikustea, garbi baino. Helduko zizuten  
burutik, arduratuko ziren, bai, bihar ere koilara nork  
berotu izateko. Ondo zekien Josuk, bera ere halakoa  
izan zelako, eta oraindik ez da guztiz ausartzen hola-  
koa ez dela baieztatzen.

Eguneko bigarren albistea idatzia izan zen. Hura  
ere zuzendariak ekarri zion. Hain jo zuen xamurki  
atean, ezen Josuk laugarrenean baino ez baitzuen en-  
tzun. Ozenagoa zen zaparrada. Luismi ez zen eskuti-  
tza ekartzera mugatu. Beti zeukan gizalegezko kei-  
nua prest, eta oraingoan botilatxo baten barruan  
etorri zen. Holako eguraldiarekin ez dago barruko  
epeltasunetik kanpora begiratzea bezalakorik, batez  
ere garagardoa lagun. Bigarrenera zeuk gonbidatu be-  
harko nauzu ni. Piparen usain gozoa zabaldu zen ha-  
ren ahotik. Betaurrekoak sudur gainean egokitu, bi-  
zartxoari hazka egin, eta horrela, botila esku batean  
eta «Josurentzat» zioen gutun-azala bestean, bakarrik  
utzi zuen berriro. Ez zen azalpenik behar, zelan hel-  
du den, nork ekarri duen, are gutxiago norena den.  
Baina «Josurentzat»? Zergatik ez «semearentzat»?  
Zalantzarik ez geratzeko?, subkontzientearen ukoa,  
bestela? Ez, amak ez dit inoiz uko egin. Bete-betean



asmatu zuen Luismik, Josuri beti egiten zion on garagardoak. Alkoholari, zaldiari ez bezala, gazte-gaztetatik hartu zion neurria. Debekatuta zegoen zentro barruan, baina Luismi ia amak baino hobeto ezagutzera iritsi zen egonaldi luze hartan, eta bazekien oraingo honetan garagardoak berak baino gehiago, keinuak lagunduko ziola. Zuzendariak berak arau bat apurtzeak asko esan gura du Josurentzat.

«Josu laztana, jakingo duzu inoiz zure amari keinu koldar hau barkatzen. Azalpenik ere ez dut zuretzat. Aitzakiarik ere ez. Orain, inoiz baino gehiago, zure bigarrena heldu. Gauza bakarra dut zuri aholkatzeko, horretarako eskubiderik edo indar moralik baldin badut: ipini harremanetan osaba Arturrekin. Ahalik eta lasterren. Badakit ez duzula hau inola ere ulertuko, baina ezagutu dudan pertsonarik oso eta fidagarriena da, eta zinez maite zaitu. Berak jakingo du zure hustasuna bigarrena onean ipintzen. Ez nazazu gehiegi madarikatu. Maite zaitut, seme».

Horrekin konpondu gura du amak egin didana? Ez dezadala madarikatu? Eta zertara dator osaba Arturren kontu hori orain? Josu atzera egiten saiatu da. Oharra puskatan deuseztatzeko gogoari eutsi eta astiro tolestu du papertxoak. Ez, hain zuzen ere, bertan amak osabaren telefonoa utzi diolako. Amak berarentzat egin duen azken ekintza dago letra horietan. Eta berba garrantzitsua mezua bukatzeko: seme. Osaba Artur. Zer daki Josuk hari buruz? Familiaran urrun mugitu den norbait izan bada, Artur da hori. Urtee-

tan ez du ikusi. Txikitako oroitzapen zokoratuenen artean bilatu behar du zerbait idorotzeko. Badago zer edo zer: nerabezaroan sartzeaz batera, urtero helarazten zion liburua. Ez zen urtebetetzearen zain geratzen, edonoiz irits zitekeen, baina urtea bukatu aurretik han zegoen, ondo bilduta, osaba Arturren liburua. Beti pentsatu zuen bere eguna noiz zen ere ez zekielako egiten zuela horrela. Kontua da, liburu haien zain ematen zuela aknearen mendeko sasoi latz hura. Ez daki inoiz utzi dion nerabe izateari, baina liburuek bai, iristeari utzi zioten. Orri haietan beti topatu zuen merezi zuen zerbait; ez ziren gazte-literaturaren zakuan sartzen ziren istorio zozo horietarikoak eta, iraurarazi nahi zien arren, egun gutxitan irensten zituen. Ideia bereziak zekartzaten eta helduago sentiarazten zuten. Norbaitek bere benetako aldaketak hartzen zituen aintzat, eta ez bakarrik ahots aldaketak edo azaleko bonak. Orain Josu gai da aitortzeko liburuak berriro ez heltzearen errua berak izan zuela. Aukeratu zuen bide nihilistak zerikusi gutxi eduki zuen liburu haiekin guztiekin, eta, gainera, zelan jakingo zuten bera non topatu, etxean baino gehiago alderrai ibiltzen bazen, berdin gaztetxe batean edo kutxazainean lo egiten bazuen?

Osaba Artur, familiako aberats okitua. Emazteak, izeko Madalenek, aspaldi laga zuena. Horretan bazuen kidetasuna amarekin. Seguruenik urrezko komunean egiten du kaka. Zer demontre egingo zuen berak holako bati laguntza eskatuta? Galdera hobeto formulatuta: zer onartu behar zuen osabak bere iloba junkieagandik? Bestalde, irribarre zuriak eta hitz po-

litak baino ez dituztenekin badaki jai daukala. Are gehiago: sekula ez litzateke makurtuko familiako beste inori laguntza eskatzera. Ulertzen du amaren aholkua, bai, bera bide da inguruko zintzoena eta, eskatuz gero, laguntzaren bat edo beste emateko prest legokeen bakarra, bihotzez. Baina orain ezin du ezertaz pentsatu. Bere etorkizunaz baino ez, bere minaz gozatu nahi du. Barru-barruraino, zorigaitzak erraiak erretzen dizkiola sentitu gura du. Garagardoak ez dio zauria eztituko; aitzitik, darion zornea biziagotuko dio. Baina horixe nahi du orain. Badaki zelan edo hala urradura zitelenak ere orbaintzen direla; beraz, orbaintzen hasi aurretik ematen dion suminduran sakondu behar du, inork ez ezerk ez diezaion unea ebats. Hori izan du beti Josuk: muturreko sentsazioen bila eman du gartzaroaren onena. Asko gozatzeko asko sufritu behar dela, lelo horrek gidatu du bizitzan.



Biharamunean Luismik lagundu zion burokraziarekin. Hiltzea ere zaila da, gero, gure gizartean. Tanatorioan jakin-min morbosoa ase zuen. Ez, amak ez zituen zainak ireki. Josuri bere azken urteetako etengabeko zultzea ekarri bide zion paralelismoa. Gorputzak urratu txikienik gabe gorde zuen amaren ederra. Eder zuria. Alta, paralelismoa egon bazegoen: pilulek egin zuten lana barrutik. Josuk susmoa zuen senideek non edo non jakin zutela bera zer ordutan joango zen, eta beste bat aukeratu bide zuten, ez, hain zuzen ere, ama-semeen arteko azken elkartzearen intimitatea errespe-

tatzearren. Putakume hipokritak. Odolean dei urruna sentitu zuen, bertan isilarazi zuena. Oraingoan indarra du irtenbide errazei muzin egiteko. Opari polita egingo ziokeen amari. Agurrari zentzua bilatu behar bazaio, agurrek inoiz zentzurik badute, ez dago biziak lurperatzean. Hildakoa lurperatuko ez duen legez. Organo-emaile agiriari kasu egin, sinatu, eta pilulek zer-bait erabilgarririk utzi badute, atera eta gorputza sutara. Suak garbitzen ei gaitu.

Josuk bere burua prestatu behar zuen jendaurrean agertzeko. Elizkizunetara guztiak agertuko dira, han ezin ezkutatuko dira. Eskua eta doluminak ere eman beharko dizkiote, gustatu zein ez. Eta han, seguruenik, osaba Artur ere egongo da. Zer esan behar dio? Kaixo, osaba, lagunduko diozu bakarrik geratu den junkie ohi honi? Junkie ohia, hori izango da aurrerantzean. Ez da ohorezko titulua, baina burua zut eroango du. Han egon ez denak ez du inoiz ulertuko «ohi» horrek zer eta zenbat gordetzen duen. Meritu gutxiagorekin irabazten dituzte batzuek dominak, eta ez dopin txikiagoarekin. «Ohi» mailara iritsi denak Vietnam oso bat daroa barruan, segada guztiei, napalmari, txikizio guztiei ihes egin dion *vietcong* garailea, lubakitik bizi-rik irten duen gerrillaria. Drogen inperialismoari aurre egin dion ekintzaile burujabea. Halakoak ziren Josuren duintasun birloratzeak. Txanponaren aldea, ifrentzu beltzari argia ipintzen ziona, oreka zaileko lehian. Eta osabari zer esan? Aldea ala ifrentzua hauta deza-keela, ala biak batera hartu beharko dituela, multzo be-rean doazela, banaezin? Josu ez da inoiz ona izan bu-rua makurtzen, ez du inoiz jakin mesedeak eskatzen.

Baina eskatu barik halakoak jasotzea espero izan du maiz. Ez du inoiz erabat sinetsi bere buruan. Bizarra eginda, ispiluan begiratu zion bere buruari. Ez, ez zara orraztuko, nahikoa da ilea txukun eroatea. Ez zara izango etorriko direnak bezain faltsua. Ez zuen eskale itxura emango, ez zien besteei erakutsiko espero zuten drogazalea, baina barkamen eske dabilen piztia otzandua ere ez. Amak maitatzen jakin zuen Josu agertuko zen, hango inori ezer zor ez ziona.

—Josu, deia duzu, Artur delako bat, zure osaba dela esan du.

Osaba Artur telefonoan? Josuk eskerrak eman zizkion Aneri. Eskerrak mandatua ekartzeagatik eta eskerrak betiko ahots eztiagatik. Zer nahi du osabak? Orain esan behar diot? Amak eskatu didala esan? Eta zer eskatu? Berarekin egun batzuk pasatzen uzteko? Ezagunen bati lana eskatzeko? Edozelan ere, osaba Artur da familiaren debeku aitortu gabea apurtu duen bakarra: egoitzara deitzeko kemena izan du. Hemen barruan senide bat duela onartzeko ausardia. Horrela esan ei du, loba zaituela, osaba duzula. Ideiak elkar bultzaka ari zitzaizkiola abiatu zen idazkaritzara. Entzungailua hartu zuenean ez zekien zelan agurtu ere. Eskerrak emanez hasi? Ez zeukan horretan ohitura handirik, han barruan irakastea lortu zuten arren. Ez zen urrats txikia izan, hango beste arima galdu bati ortuan eskerrak eman zizkion lehen aldia. Gimnasia mota bat bihurtu zen gero, hasieran mihiari eragiten zizkion axubetak gainditu ahala. Hasteko, 40 kiloko altxaldia: irribarre behartua. Hurrena, 50ekoa: «milesker» azkar eta adiezina. 60koa

gero: «eskerrik asko» trabatua. Gaur egun 200ekoak ere altxa ditzakek, baina hemen barruko saio ez-ofizialeetan. Plazan ere gai ote haiz?

—Kaixo, Josu, ez zakiat orain arte familiako inorengandik entzun duan, ez diat uste: zinez sentitzen diat, amagatik eta higatik.

—Eskerrik asko, osaba –bai, esan duzu, ez zaizu ahoa okertu, berez irten du, erraz, laztan baten moduan.

—Bazakiat topikoa iritziko dioala, baina gaur ez diat hiletara joaterik. Aitzakia, ordea, ona duk: kanpoan nagok, Indian.

Josuk ez zuen erantzun. Ez zuen inoiz pentsatuko, baina harri baten moduan jausi zitzaion urdailean. Ohartu zen benetan sentituko zuela osaba Arturren falta elizkizunetan. Ez zuen ezer esan.

—Familiaren aurpegi goibel zuriak galduko ditiat, beraz. Hire amari behar bezalako omenaldia egiteko aukera izango diat gero ere. Baina ez diat horretarako deitu. Horretarako bakarrik ez. Zelan dituk giharrak?

Josuren aurpegi txunditua ikusi gabe ere, Arturrek argi bide zekien ez zuela erantzunaren zain geratu behar.

—Buruko giharrak, bereziki. Ez zakiat azken urteotan ezer onik irakurri duan garunari lizuna kentzeko... Tira, hobe hizkuntza kriptikoa uztea: lan egiteko moduan hago? Buruarekin, ez ditiat hire besoak nahi, kutxak eta zakuak mugitzeko. Neuronak behar ditiat, gogoratzen dudan Josuk erruz zituenak.

Gero eta gutxiago ulertzen zuen Josuk. Telefonoa hartu aurretik ideiak argi ez bazituen, orain anabasa

hutsa dago buruan. Zerbait eskatu behar zion, laguntza, eta eskatzeko modua bilatu behar zuen. Zelan kontzentratu berba egokien bila, osabaren galderen artean?

—Hemen besoak landu ditut, bereziki. Ikusi behar zenuke gure baratzea.

—Ez zakiat ikusterik izango dudan, baina sasoi honetan tomaterik edo piperrik geratzen bazaizue, poltsatxo bat ekartzeko eskatu gura diat. Esan nahi diat: etxeke bulegoan paper nahaste handia zaukaat, azken boladan denbora asko eman diat kanpoan eta lanak ez dik etenik. Idazkari bat behar nitek. Bestetik topatzen duan artean, etorriko hintzateke txotxolo honekin bizitzera eta soldata bat irabaztera? Ez diat ilargia eskainiko, baina hire lanaren neurriko dirua izango duk —Josu informazio gaindosia ordenatzen saiatu zen, mutu—. Eta etxea. Hirezat gela bat atontzeko eskatuko diat, eskaintza onartzen badidak.

Josu zorabiatuta sentitu zen. Zelan lortu zuen osaba Arturrek egoera goitik bera iraultzea? Ez al zion, bada, berak eskatu behar laguntza, apal eta itxaropen handirik gabe? Zelan hartu zion aurre osabak? Amak dena denboraz neurtu eta osabari ere idatziko zion? Ez, hori gehiegizkoa zatekeen. Ez zitzaion kaskoan sartzen aberaskume hark benetan bere premia izan zezakeenik. Ikasi beharko zuen batzuek trebezia handia dutela eskaintza itzelak egiteko mesedea eskatzen duenaren apaltasunarekin. Beharbada hantxe zegoen osabaren negoziotarako trebezia. Josu deseroso sentitzen zen azal barruan. Oker sartutako lerro baten modukoa zen. Begiak itxi eta entzungailua estutu zuen.

—Paperak txukuntzea ez da zaila izango, han izango nauzu.



—Baina Kami, zer egiten dik hi lako batek unibertsi-tatean. Zer eta burges horien negozioak ikasi guran –barre egin zion Tontxuk.

—Tira, agian bada garaia erosle hutsak izateari uzteko, beti sartzen zigutek ziria, seguru. Ondo egon litekek kontabilitate apur bat –jarraitu zuen zirika-tzen Ratak koilara berotu bitartean–. Hik, Txepas, ez duk kimika ikasi gura?

Kamik berak egin zuen barre. Kami, hola esaten zioten lagunek. Gramo batzuen truke edonoiz salduko zuketzen lagun haiek. Kamikaze. Ez zen izen desegokia zeroan bidea laburbiltzeko. Hura izan zen amaren ha-maikagarren ahalegina Josu giro ustelenetatik alden-tzeko: Enpresa Eskolan matrikulatzea. Urtebete eman zuen. Matrikulatuta, klasera agertzea beste kontu bat zelako. Lehen orduan hara agertu, eta lekurik lortzen ez bazuen, maiz hala gertatzen zen, gainera, Josuk ez baitzeukan grina berezirik ehunka ikasle sutsu haien artean jesarleku puta bategatik borrokan hasteko, kafe-tegira jaisten zen garagardoa lasai hartzera. Ez zuen gau-za handirik ikasi, beraz. Teoria Ekonomikoan eskaera eta eskaintza kurbak non edo non topatzen zirela. Kon-tabilitate liburuek idazpenak zituztela, bezeroak eta kutxa. Ehorztetxeen idazpen erabiliena: bezeroa ku-txara. Hango txiste txarra. Eta zer zuen hark ona, ba-da? Gelako ordezkari izendatu zuten borroka itxurako



neska panpoxa eta otseme gosetia zirudien gizonjale hura eta haren minigona, arbela baino erakargarriagoa. Eta maionesak gainezka egiten zien sandwichak ateratzen zizkion kafetegiko neska ere bai, potolotasun doia sentsualtasun espontaneoz eroaten zekiena. Garagardoan ostean, laster egin zuen lagun berriren bat billarretara edo futbolerara joateko, «Salón del Automático» lur azpiko hartara. Belar edo txokolate apur bat erre jubilatuek berotu ohi zituzten plazako bankuetan; ganorazko ezer gutxi. Beste porrot bat bidean. Kontu jakina zen hasi aurretik ere. Zertan ez zion egin huts amari? Zelan espero zezakeen berak, seme galdu eta bakarrak, lagunduko ziola bizirik irauten? Denek laga dute albo batera. Aita izan zen lehena, inoiz agertu ez zena. Badaki ama hil dena? Badaki aita izan zena ere? Eta baleki ere, eroango lizkioke loreak kanposantura? Tokitan dago izenik gabeko txori hura. Amaren ikuspegitik, behintzat, Josurentzat inoiz ez baitzen aitarik.

Amak eta osaba Arturrek bazeukaten elkar ulertzeko puntu bat hor. Noiz desagertu zen izeko Madalena, amaren ahizpa? Hark, behintzat, arrazoiren bat eman ei zuen. Hori entzun uste zion behin amari. Europaz nazkatuta laga zuen guztia, senarra barne. Josuk Indian imajinatzen du, tunika laranja batean eta kasamotz, sekta budista batekin janaria biltzen kaleetan. Ez daki nondik atera duen irudia. Hori izan daiteke osaba Arturren arrazoiatariko bat loba ondoan gura izateko. Seme-alabarik gabe, bakarrik utzi duten beste arima bat da. Beharbada ez dira hain desberdinak: Josuk zaldiz bete nahi izan ditu bizitzak bete ez diz-

kion hutsuneak, eta osaba Arturrek, diruz. Oraindik ez zaio buruan sartzen zer egin dezakeen osabaren etxean. Ez du ezer ikasi; baratzea jagoten azken urteotan. Trostatik jaitsi eta oinez ibiltzen. Urtebete pasatu da zainak zulatu barik. Odola garbi du. Zein erraza litzatekeen berriro harrari gorputzean barreiatzen uztea, buruhauste guztiak jan ditzan. Zein erraza beste porrot bat biltzea. Baina orain ez dago prest. Ez du gogorik Josu ostera Kami bihurtzeko. Kamikaze ez, behintzat. *Kami* ez da jainkoa japonieraz? Horretarako ere ez da jaiio, ez da eskolan irakatsi nahi izan zioten jaun horren oso laguna. Ez aitarik ez jainkorik. Agian bigarren zatia hartu behar luke: *kaze*, haizea. Gustura bihurtuko litzateke haize.

Orduak daramatza Josuk ohean bueltaka, begiak bildu ezinik. Zenbat leku gogor, hotz eta hezetan ez du lo egin, eta orain ez da gai luzaroan izan duen benetako ohe gozoan egiteko. Eta azken gaua izan liteke. Luismirekin berba egin du azken egunotan. Osaba Arturren eskaintzarena kontatu dio. Beste norbaiten hitzetan bilatu behar izan ditu azken erabakia hartzeko arrazoiak. Luismi ezin hobea da horretarako. Dena dela, ilunpetatik argitara gidatu duen aurpegian zalan-tza keinuren bat ikusi uste izan du. Bere paranoiak izan daitezke, seguruenik bere ziurtasunik ezak atze-man nahi izan du hori. Oraindik ez du argi ikusten zer egin dezakeen kapitalista horren etxean, zer lan egin dezakeen, zelan molda daitekeen. Benetako ar-dura bat hartzeari dion beldurra izan daiteke. Sarritan berba egin dio Luismik horretaz, modu batean edo bestean. Aitak alde egin zuenean haren leku sa-

kratua hartzeari izan zion beldurra edozein erantzukizunetara zabaldu zitzaion. Hori amarekin oheratzeko debeku sakratua apurtzea balitz legez. Teoria sasi-edipikoa edo. Tabu hori apurtzeko beldurrez auto-suntsipenaren besoetara bota ei zuen bere burua. Tira, aitak ez zuen sekula alde egin. Ez zen inoiz izan. Kito. Teoriak oinarritik egiten zuen huts. Edo agian gauza bera da aitak alde egitea eta aitarik inoiz ez izatea. Balizko aitak seme hura ez zuela inoiz nahi izan adierazten du.

Edozelan ere, erabakia hartuta dago: osaba Indiatik itzuli da eta bihar haren etxera doa. Indiatik. Josuri irribarrea agertu zaio. Beharbada, izeko Madalen ikustera joan da, aberatsa izateak zer abantaila dituen azaltzera. Edo haren ontzian arroza baino zer-bait mamitsuagoa sartzera. Ez da umore lizunak salbatzen duen lehen aldia. Luzaroan egon da txortan egin gabe. Ez da gutxi jakitea egiten duenean ez duela inor arriskuan ipiniko; odolean ez duela birusik, alegia. Horretan, behintzat, zorte onekoa izan da. Eskutik eskura, zainetik zainera, hainbeste orratz igaro, eta kutsatu barik irtetea miraritzat ere jo daiteke. Agian Kami hori ez zaio hain txarto etorri. Agian izarok azken aldiz zikintzea da lasai lo egin ahal izateko behar duzuna, astindu on bat. Tira, Aneri eskainiko diozu? Hemen emango duzun azken gauean haren izenean utziko duzu zeure aztarnatxoa. Merezi du holako eskaintza beti hain jatorra izategatik. Ahots ez-tia nahikoa izan daiteke edonoren prakak bustiarazteko. Pena da hark hemen lo ez egitea, bestela bisita egingo zenioke agurra behar bezala egiteko. Zein ondo daramatzen 40 urte horiek. Josuk begiak itxi ditu

buruari irudi hezeak ekartzen uzteko. Bai, horrek emango dio lo egiteko baretasuna.



—Zaindu zaitetz, Josu. Edozer behar duzunean, badakizu non gaituzun.

Josuk atletik ageri den kaleari begiratzen zion, kafea nahastu bitartean. Hogei minutu zeuzkan autobusa hartu arte. Bazirudien Luismik azken segundo arte lagundu nahi ziola, ematen ari zena urrats giltzarria zela jakitun. Ez zen nahikoa autoz Bilboraino eramatea. Maisuari, lagunari zerion lasaitasun hura behar zuen Josuk. Luismik egunkaria zuen zabaldua mahai gainean, betiko pipa erretzen zuela.

—Ez zen makala izan atzokoa, begira.

Josuk arretagabe begiratu zion besteak eskaintzen zion argazkiari. Ezaguna zuen irudia, manifa guztiek zituztelako kolore eta usain berberak. Zaborrontziak sutan, ke beltza dariela, harri koskorak, pneumatikoak, paperak, kristalak... eta beltzak bukatxak eskuetan, mugitzen zen edozeren kontra pilotak botatzeko prest. Azken urteetan, korrika egiten zuten uniformeen kolorea zen baino ez zen aldatu. Josu ez da gai gogoratzeko noiz pasatu zen kaka koloretik gailipot hartara, begiak azkar ohitzen dira. Tartean egon zen urdina ahaztuta zaukan. Luismik orri batzuk gailinetik pasatu eta erlojuari begiratu zion.

—Zoaz lasai, badakit gaur borroka gogorra duzula burokraziarekin. Ez da itxurosoa berandu iristea.

Luismiren irribarretik usain gozoko hodeitxoak irten zuen. Egia zen, Aldundian egon behar zuen hango jauntxo batekin diru-laguntzengatik negar egiteko. Negarrez baino ez baita lortzen premiazkoak diren gauzetarako dirua. Ez beste pitokeria batzuetarako, arraioa.

—Tira, mutila, hartu lasai kafe hori, oraindik badituzu minutu batzuk. Agian, ikasiko duzunarekin, gure kontularia izan zaitezke egunen batean —eta begi-keinu bat eginda, egunkaria barran uztera altxatu zen.

—Ez, ekarri, neuk ere egunean ipini behar dut. Osabaren aurrean hobe dut munduan zer mugitzen den apur bat jakin.

Luismi zalantzatan bezala geratu zen barrarantz okertuta, bizarrari hazka eginez, baina azkenean *Egin* mahai aurrean utzi zion. Gaztea eskua emateko altxatu zen. Kostatuko zitzaion berari Luismiren keinua egitea, beraz, berriro ere, maisuari eskertu beharko zion aurrea hartzea eta besarkada beroan bat egitea.

—Deitu beharko didazu, kontatzeko zelakoa den holako enpresaburu baten etxean bizitzea eta harenztzat lan egitea. Ez dut zalantzarik ondo baino hobeto egingo duzula.

Alde egin zuen, beraz. Lehen aldiz azken urtean, laguntza barik egin behar zion aurre bizitzari. Egunkaria hartu eta adigabe hasi zen orriak aurrera eta atzera, batek ukabilkada baten moduan astindu zuen arte: Iosu Eskorbuto hilda! Titularra irakurri orduko ulertu ditu Luismiren mugimendu batzuk. Seguruenik, berak ere irakurri du. Ez duzu jakin esan behar ote zenidan,

ezta? Zelan eragingo zidan. Nire izenkidea nire patuki-dea ere izan zitekeen. Ez, ni ez nau herio puta ederrak hola eroango. Oraindik ez. Orain badaukat zeri heldu, izan behar dut. Ez du oso konbentzituta pentsatu azken esaldia. Koilaratxoari eusten dion eskuan dardara txiki bat sentitu du. Bizkaibus hura mundu ezezaguneko bidaia da. Zaldiz egindakoak baino lanbrotsuagoa. Iosu hilda. Guztiari aurre egin dion kondaira bat, aurrerantzean. Heroinak galdutako belaunaldiaren ikur berria. Jualma izango ote da hurrengoa? Ez du oso urrun izango bukaera.

Ez dio onik egin albisteak. Kafea bukatu ere ez du egin. Egunkaria utzi, eta autobusa hartzera abiatu da, motxila bizkarrean. 1992ko apirilaren 1a, gogoan hartzeko eguna. Iosu Eskorbuto hilda eta bera osaba aberatsaren etxera, probetxuzko pertsona bilakatzera. Txanpon batzuk atera, ordaindu, eta atzealdera jo du. Walkmana bilatu du motxilan, Eskorbutoaren zinta gero. *Impuesto revolucionario*, inoiz grabatu den zuzenekorik onena. Min eta frustrazio guztia herioari aurpegira barre egitera zuzendua. *Somos ratas en Bizkaia*, bai, zer bestela? *Somos ratas contaminadas*.

Leihotik begira zegoela, esku bat sentitu zuen besoan. Orduan konturatu zen segundo bat lehenago ahots urrun bat saiatu zela Jualmaren ahotsaren gainetik iristen. Hara begiratu zuen.

—Kami! Non ostia egon haiz aspaldi honetan, kastroia! Lurrak irentsi hau, ala?

Musika jaitsi du.

—Ez didak motxila kendu behar jesar nadin? Hi bai zaldun ona.

Kiri. Oihartzun urrun baten moduan ekarri du burura neskaren aurpegia. Kostatu zaio. Ez dago oso hondatuta, baina ez da 17 urterekin ametsak berotzen zizkion 19 urteko edertasun basati hura. Kiri, Kiri, Kiri; bai, oroitzapenak arantza guztiakin agertu dira. Infernuak bidali ote dio? Burua husturik kendu du motxila, eta neskak gorputza ondoan jausten utzi du. Burutik heldu eta musu estua utzi dio ezpainetan.

—Alua, lurrak irentsita bizi izan haiz. Lagun zaharrak ahaztu dituk, ala?

—Garbi nagon, Kiri, oraintxe zapaldu dinat kalea.

—Garbi? Neu ere garbi nagok. Zer uste duk, ba? Denborak denok aldatzen gaitik. Baina hilda dirudik, alaitu aurpegi hori.

—Ez nagon oso pozik ibiltzeko moduan, ama hil zaidan.

Ez, ez zion horretaz zehaztasunik emango. Egia esan, ez du batere gogorik Kirirekin berba egiteko. Mundu horretatik at dago, ez du ezer jakin gura. Orain inoiz baino gehiago desiratu du osaba Arturren aterpea, iraganaz babesteko gotorlekua. Zergatik egin behar izan dute topo?

—Tira, motel, sentitzen diat. Entzun duk Iosurena? Zaldia ez bada, hiesak eroango gaitik guztiok azkenean, gero eta gutxiago gaituk. Nora hoa? Ni Galdakaora, zaharrei diru apur bat ateratzera.

—Mundakara –atera zaio mihiari koska egin ahal izan aurretik–, osaba baten etxera.

Josuk bere burua madarikatu du. Ez zuen elkarriketa luzatzerik gura, ez zion neska hari ezertxo ere kontatu nahi. Ezezaguna da, ez dakit nor den, ez gaitu ezerk batzen. Alde hemendik. Autobus puta hau ezin da azkarrago iritsi Galdakaora?

—Mundakara. Hango osaba ez da dirua belarrietatik ateratzen zaion hura? Zer galdu zaik haren etxean?

—Berarentzat egingo dinat lan.

Ostia puta, ez dakik isiltzen, ergel horrek? Josu gero eta deserosoago sentitzen da. Kiriren mugimendu bakoitzak, eskuak dantzarazteko moduak, ileak, hatsak, begiradak berak, nazka ematen diote. Ez berez neskak itxura nazkagarria duelako, zenbat eta gehiago begiratuta orduan eta hondatuago sumatu arren. Barru-barrutik irteten zaion zerbait da, bere oroitzapenen labetik ateratako irudi kiskalgarriak, urdaila zorabiotik gertu ipintzen diona.

—Lagunei kontatzen diedanean! Kami kalean zago, eta garbi! Mamu bat ez bahaiz, behintzat. Nork esango zigan.

—Ez! –jesarlekuan salto egin duela sentitu du, benetan milimetro bat ere mugitu ez arren; bihotzak egin dio zilipurdi—. Ez, Kiri, ez esan ezer inori, oraindik ez –ahotsa apaldu du, ez da nahiko indartsu sentitzen ondoan duen lurrun-makinari aurre egiteko—. Eman denbora, hurrengo egunetan oso lanpetuta egongo naun.

Kiri barre-algaraka hasi da. Josuk aukera izan du falta dituen hortzen zuloak zenbatzeko.

—Lanpetuta! Zer, burgestxo bihurtu behar zaigu gure Kami orain? Ez eman popatik, txo! –Kirik leiho-



tik begiratu eta kolpe batzuk jo dizkio izterrean—. Egongo gaituk, motel. Hankak sasoiko dituk, agian eskatuko diat hauekin martxa apur bat emateko. Jen-deak gaur egun ez zakik larrua jotzen, eta hi bikaina hintzen. Ea ez zaian ahaztu!

Josuk irribarre bortxatua egin eta ondo segi lehor eta ia mutuz agurtu du. Autobusetik at ikusi duenean, sakon hartu du arnasa. Oraindik izerdi hotza eragiten dio urdailetako ondoezak. Musika igo du, buruan pirlatzen zaizkion irudien aurka borroka egiteko. Zuri-beltzeko argazki zaharren moduan pasatu dira, gero eta azkarrago, film oso bilakatu arte.



—Ostia, Kami, hor sartu dena Kiri duk, ez duk ezagutzen, ezta?

Kamik ezezko keinua egin zuen, Kaixo tabernaren atetik agertua zen neskari begirik kendu barik. Ile gorriak tente, praka estu apurtuetan, kateme baten antza hartu zion mutilak. Entzunda zeukan izena lagunartean, bazekien askori zut ipintzen zitzaiea haren gainean berba egite hutsarekin, eta ikusi orduko ulertu zuen zergatik. Gerri inguruko kateak aldaka kolpe bakoitzarekin mugitzen zitzaizkion, eta begietatik luzatzen zen margo beltz sarriak begi berde distiratsuak nabarmentzen zituen. Ezpain finen distirari tentazio arriskutsuaren usaina zerion.

—Itxi ahoa, lerdea darik-eta. Zutabearena egiten lotu barik, erdu ezagutzera. Asko zakik horrek munduaz, ez gure moduan, beraz, saiatu inozo baten pare

ez geratzen –Txolok La Pollaren *Los 7 enanitos* kantaren gainetik berba egiten zion, ia oihuka–. Entzun dudanagatik, Oñatiko gaztetxearen okupazioan parte hartu zian orain dela pare bat urte, saltsa guztietan zagok. Barna, Madril, Vigo... hiriz hiri ibili duk eta mugitzen den guztia ezagutzen dik.

Txolok bultzatuta, Kiriganaino iritsi ziren. Aupa Kiri, aspaldiko, hau Kami dun, uste dinat ez dunala ezagutzen. Holako sarrera egin zion. Kirik goitik beherako begiratu azkarra egin, irribarre laburra, baina nahikoa mutilaren gorputzean pozoil hilgarria sartzeko, eta, *aiho, aiho, aiho*, kalimotxoa edaten jarraitu zuen.

—Talde hau kristona duk, ikusi duzue kontzertuetan? El Flipas esaten ziotek kantariari, zelako harrikada duen. Baduzue materialik hortik? Goraino igotzeko irrikan nagok.

Horrelaxe egoten zen beti, goraino igotzeko irrikan. Denborarekin Josuk aukerak izan zituen ezagutzeko neska hark bere buruarentzat baino ez zuela lekurik bihotzean. Atsegina, plazera, muturreko esperimentziak eta, bereziki, heroina zainetan izatea, besterik ez zuen bilatzen. Baina orduan Josuk 17 urte zituen, lehen punk eztandaren zurrunbiloan harrapatutako nerabea baino ez zen, eta Kiri urte bi gehiagoko mitoa, guztia zekiena, konplexurik ez zeukana, bere buruaren jabe, segurua ematen zuena, mundua eta aurrean ipintzen zitzaion oro jateko prest zirudiena. Arazo ibiltaria. Eta orain horixe behar du gutxien, arazoak.

Mundakan dago, eta hura Galdakaon. Josuk ez du bati ere asmorik osabaren etxetik mugitzeko hurrengo hilabeteetan. Ez dute Bilbon harrapatuko lagun zaharrek, are gutxiago Kiri lako lehergailu batek. Autobusak Goiko kalean utzi du. Bere buruari berriro erreparatu eta galdera errepikatu zaio: zer egingo ote du bere moduko batek etxe aberats batean. Hasteko, etxe hura topatu. Osabak esandakoagatik, Goiko kaleko azkena da, Sukarrietako noranzkoan, eta bera baino ez da han bizi. Zelan bestela. Etxe osoa jaun dirudunarentzat. Motxila bizkarrean, herria zeharkatu du ezagutzen duen apurra gogoratuz. Ez da ezertan aldatu eta, udako sasotik kanpo, basamortua ematen du. Eguneko ordu horretan bai, behintzat. Han dago, eskumako espaloian azken etxea. 1. solairuan ei da. Ataria irekita. Hau etxe zaharra. Ez dauka nahikorik zaharberritzeko, ala? Josuk okertu ote den pentsatu du margoa zatika galduta daukaten hornei begira. Pisu biko eraikina da, baina luxuzko itxurarik inondik inora ez duena. Zalantzati igo ditu eskailerak lehenengo solairuraino. Han, ate bakarra. Eskuan dakarren pape-rari begiratu dio berriro. Ez dago beste aukerarik. Txirrina jo du. Beste aldean presaka entzun ditu urratsak. Josuk entzungailuak bildu eta poltsikoan gorde du walkmana atea ireki denerako.

—Kaixo, zu Arturren loba zara, ezta? Aurrera, zure zain egon gara.

Josu nora ezean geratu da. Aurrean emakume txikia du, hegoamerikar indiarra, zalantza barik, adina zehazteko zaila, baina berrogeiak gainditua bai. Irribarre zabal-zabala du, eta Josuk makurtu behar izan

du haren musuak jasotzeko. Bizia da gero. Eta euskalduna?

—Eman poltsa handi hori, eta zoaz eskuak garbitzera, hemen goiz bazkaltzen dugu.

Josuk barrura egin du. Inguruan ez du espero zuen ezer topatu. Hormetan itxura inpresionistako margolan bakanen bat, baina, oro har, apaingarri oso gutxi. Harrera gelan antzinako itxura duten besaulki bi, esekitokia eta lauburua duen kutxatzar bat, zur ilunekoa, etxeak beste urte eduki behar dituenena. Non daude, baina, osabaren ondasun guztiak? Dena dela, bere biluzian, giro beroa, eroso dario etxeari.

Komuna ere ildo berekoa: urteak pilatutako azuleju eta baldosak tonu urdin-berdeetan, antigoaleko armairu zuri zurezkoa, *aftershave*, usain-kengarria eta garbiketarako oinarrizkoak apaltxo beltz batean, eta komun batek behar dituen derrigorrezko irola, bideta, konketa eta bainuontzia, plastikozko gortina loredunarekin, amamaren gustukoa datekeena. Zabala eta argitsua, hori bai, baina hotza Josuren gusturako. Ate gainean ugertzen hastea baino falta ez duen lanpara bikoitzeko berogailuari erreparatu dio. Tira, badago zelan berotu, behar izanez gero. Eskuak garbitu ditu, oraindik izenik ez duen emakumearen aginduei otzan eta mekanikoki.

—Erakutsiko dizut zure logela izango dena. Ez dauka gauza handirik, beraz, uste dut Arturrek zure gustura moldatzen utziko dizula. Horrekin ez da oso maniatikoa. Ordenatuta daukazun bitartean, dena ondo.

Gustatzen zaio euskarari ematen dion doinu ez-tia. Baina zer egiten du osabaren etxean? Ez dio ho-

rretaz ezer esan. Bakardadeaz gogaitu eta beste emakume bat bilatu bide du azeriak. Pentsamenduak irakurri balizkio legez, emakumea beste azalpen motetan hasi da:

—Ez dizut neure buruaren berri eman, barkatu. Ni Laura naiz, tira, deitu Laurita, etxekoek bezala. Boliviakoa naiz eta zure osabagatik nago hemen. Baina hori historia luzea da, eta izango dugu denbora hitz egiteko, etxean lan egiten dut-eta. Beraz, zerbait zikin topatu edo jatekoa gustatzen ez bazaizu, neu erruduna. Baina hori ez da gertatuko, Laurita deitzen naizen bezala ez da gertatuko. Txikia bai, baina langile handia nauzu.

Bizia, bai, eta atsegina, dena irribarrea galdu barik egiten dutenarikoa. Motxila ohe gainean utzi, eta eskua zabalduz erakutsi dio logela izango duena. Ez da, ez, luxuzkoa, bai xumea eta gozoa. Osabak ukitu pertsonal batzuk ematen uzten badio, jauregi batean baino erosoago sentituko da. Josuren burutik mamu eta beldur batzuk aienatzen hasi dira. Egia ote da osaba Artur hain aberatsa dela? Handinahia, behintzat, ez dirudi. Eta hori hobeto ezkontzen da liburu berezi haiek oparitzen zizkion pertsonarekin.

—Hemen duzu osaba. Utziko zaituztet, erregosia bukatuta egongo da-eta.

Aterantz bihurtu eta han topatu du osaba. Gogoratzaren zuen baino baxuagoa, baina hori ez da osabaren errua, orduko umearen oroitzapenena baizik. Argala da, baina itxura osasuntsua hartu dio lehenengo begiratuan. Elkar neurtu ondoren, osaba Arturrek egin du lehen mugimendua, loba besoetan hartzeko.

—Ondo etorri, mutila.

Tarte batez mutu iraun dute, besarkatuta.

—Barkatu berriro, hire amari azken agurra emateko egon ez banaiz. Berak bazatik bihotza han izan dudala.

—Berak badaki, bai.

Amaren azken borondatea esan ez esan ibili da Josu. Horren orde, motxila ireki eta plastikozko poltsa bat atera du. Hona piper eta tomate batzuk. Negutegikoak dira, badugu txikitxo bat sasoiz kanpo ere zer egin izateko. Ez dira sasoikoak bezain gozoak, jakina, baina tira...

—Mutila, eskertzen da. Honek uste baino gehiago adierazten zidak. Gose haiz? Lauritak prestatzen dituenak jateko ez duk goserik behar, berez sartzen dituk. Berezko estiloa dik Lauritak. Batzuetan pipermin lar, baina urdailean arazorik ez baduk, gozatu behar duk hemengo otorduekin. Ni ez nauk jatun handia, gurago diat gutxi baina gozo. Hi asko jatekoa bahaiz, esango zioat aurrerantzean gehiago prestatzeko.

—Ez, ez, ohituta nago aurrean dudana jaten, gehiago eskatu barik.

Ohartu denerako, zekarren tentsio apurra guztiz desagertuta dago. Nondik atera du familiak osaba Arturri buruzko irudia? Haren diruaz berba egiten dutenek bai, badute daukatena eta ez daukatena ere erakusteko grina. Agian bolada txarra pasatu du, dirutza inbertsio desegokietan galdu... Edo agian zerikusia du behin oparitu zion liburuarekin, bidali zion azkenetarikoa: Erich Fromm-en *¿Tener o ser?* Argigarria. Egia esan, aberastasunarena alde batera lagata, erres-

petua izan da nagusi familian osaba Arturrez berba egiterakoan; ez zaio inoiz zintzotasuna zalantzan ipini, eta hori ere bada adierazle bat.

*Fricasé de cerdo*, horrela azaldu zion Lauritak lapikoa mahaian ipini zuenean. Osaba Artur ez ei zen oso haragizalea, baina noizean behin gorputzari poztasunen bat edo beste eman behar zaio, are gehiago norbaiti ongietorria behar legez egin behar zaionean. Josuk ez zuen oso ondo ulertzen boliviarr andrearen eta osabaren artean zer harreman mota zegoen, ez baitzirudien ohikoena neskameak edo dena delakoak bere nagusiaren mahai berean bazkaltzeak, baina zer zekien berak, etxean inoiz holakorik izan ez bazuen. Edozelan ere, gero eta atseginago zuen emakumea. Zailtasunen bat edo beste zeukan euskal aditzekin, baina oso txukun moldatzen zen. Zure osabak ipini zidan baldintza izan zen, haren etxean lan egiteko euskara deabru hau ikastea. Ez dakit zuen arbasoek zer zuten buruan, leizeetan, gauzak hain korapilatsu asmatzeko. Baina tira, berak ordaindu dit euskaltegia, eta ez naiz kexaka hasiko... Osabak gutxiago berba egin zuen. Josuk haren begirada sentitzen zuen, azterketa zogia. *Cocadas*. Hauek gure inguruko herri askotan jaten dira. On egin. Lauritak irekitako bideari jarraitu eta opil itxurako haietako bi hartu zituen Josuk. Ez zen gose geratuko, inondik inora.

—Utziko ditut jaunak bakarrik, badago zer garbitu sukaldean. Artur, lehen egunean ez nahastu gehiegi zure lobaren burua. Zuk oraindik ez dakizu, baina ulertuko duzu eta orduan esango didazu. Et, et, et, zu, gaztea, zeure lekuan, mahaia batzeko nahikoa beso

dauzkat, eta uste baino indartsuagoak. Eskertzen dizut asmoa.

Esan, platerak batu, eta irribarrea galtzen ez zuen aurpegi biribilak gela utzi zuen. Une batez osaba eta loba elkarri begira geratu ziren, mutu.

—Nik bazkarian ez diat ohitura handirik, horregatik ez dik eskaini, baina kaferik edo gura baduk...

—Ondo nago. Agian azaldu beharko didazu zer lan mota izango dudan.

—Bai, apurka-apurka. Batez ere paperak txukun edukitzea. Batzuetan ez diat bereizten bulegoa eta etxea, eta azkenean ez zakiat zer agiri dudan hemen eta zein han. Kontu batzuk birpasatu, faxak eta esku-titzak antolatu...

—Hau da duzun etxe bakarra? —atera zaio Josuri, pentsatu barik. Ezin du ideia burutik baztertu. Zergatik hain etxe xumea? Telebistarik ere ez du inon ikusi eta teknologiaren aztarna bakarra musika kate txiki batean topatu du. Osabak ingurura begiratu du.

—Zer espero huen, bada? Bada bizitzeko behar hukeen besterik? Ez dagoen zerbait ezinbesteko baduk, erosiko diagu, ez zagok arazorik.

Hori da dena? Ez dago beste azalpenik? Premia kontua baino ez da? Lobaren begirada nahasiaren atzetik ibili da osaba. Josuk ez dio gizonaren irribarre jostariari antzeman, buruak informazio gaindosia ordenatzeko ahaleginean dihardu. Gelak, bazkaldu duten mahaiaz, besaulki biz eta sofa luzeago batez gain ezer gutxi dauka. Boliviarra bide den tapiz bat horman eskegita, musika katetxoa beste mahaitxo baten gainean, bozgorailuak estrategikoki zintzilikatuta, eta



jatorri askotakoak diruditen maskara batzuk horma batean. Leihate zabala, balkoirako atea eta, kristalezko mahai txiki biribil baten gainean, leihatearen argipean, pertsonalak ematen duten aztarna bakarrak: hiruzpalau argazki. Bere lekutik osaba ikusi uste izan du, ospa egindako izekorekin, baina ez da ausartu ikertzera altxatzen. Osabak ere bere mineria bide du, eta hobe inoren zaurietara ez hurbiltzea.

—Dena dela, hik gutxiagorekin ere moldatzen ikasi duk, oker ez banago...

Josu lehen aldiz sentitu da pitin bat deseroso, iraganaren itzala bere ezkutalekutik luzatzeko gertu. Lipar batez izekoren irudia burura etorri zaio, kontraeraso modura, baina berehala baztertu du, Luismi gogora ekarrita: utzi autodefentsarako etengabeko jarrerara hori eta sinistu besteen borondate onean. Osabak aurrera jarraitu du, lobaren gorputzaren behin-behineko tenkatzeari erreparatu barik. Edo agian antzeman diolako, hain zuzen ere.

—Jendea ez duk beti dirudiena edo besteek esaten dutena. Ez ni ez hi. Horregatik hago hemen. Nire etxean ez nitek hartuko konfiantza ematen ez didan inor. Erakutsi gaur egun hi nor haizen eta ezagutuko duk hire osaba nor den. Zerotik. Niretzat hire bizitza gaur hasi duk. Hasi hire osabaren irudia gaurtik aurrera egiten. Ados?

Josuk lerro artean irakurri du: konfiantza, aurreiritzirik eza, zerotik hastea... Hala ere, uxatu ezinik dabilen beste zomorro bat dabilkio inguruka.

—Barkatu ezagutu nuen osaba gogora ekartzea, hura lehen eskutik iritsi zitzaidan-eta: ez duzu libu-

rutegirik etxean? Horrek bai, txunditu egiten nau, baina agian beste gela bat duzu...

—Liburuak gordetzeko? Zertarako gorde? Aspaldian egin nioan uko jabegoaren morrontzari, neurri batean, behintzat. Azkenean nor duk jabea, gu ditugun gauzenak, ala haiek gureak?

—Eta ez duzu irakurtzen? Oparitzen zenizkidanak ez zenituen irakurtzen?

Osabak barre egin du, barre zintzoa, barrutik irrendakoa.

—Jakina irakurtzen dudana! Oparitzen nizkian guztiak atera behar nien guztia atera ostean bidaltzen nizkian, motel, eta ez nioan bidaltzeari utzi irakurtzeaz nekatzeagatik edo. Ez dakik zer den liburu bat askatzea? Zer egin behar nuke? Irakurri eta apalategi batean hautsa biltzen laga? Gehiago behar ez ditudanean *ahaztu* egiten ditiat. Trenean, autobusean, Txorrokopuntan, talan, taberna batean... Asko diagu hik eta biok berba egiteko, bai horixe, baina gaur Lauritak eskatu zidak heurre burua ez nekatzeko eta nik inori jaramon egiten badiot, berari egiten zioat. Kopatxorik ere ez?

Josuk buruaz egin dio uko. Ideien ringa dirudien buruaz. Izan ere, ekarri dituen ideia batzuek ez dute amore eman gura, eta oraindik astintzen dituzte ukabilak lekua eskatzen duten berrien aurka. Osabaren negozioak ezagutu behar ditu aurrean nor duen hobeto definitzeko. Burges demagogo asko dago munduan, baita sasi-ezkertiar gezurti gehiegi ere. Ez zaio bururatzen negozio-gizon arrakastatsua eta jabegoaz arduratzen ez den arima eskuzabala ezkontzeko modurik. Zein dira osabak ezkututzen dituen kartak?

—Egon naizen lekuan erakutsi digute luzaroan nagi ibiltzeak ez dakarrela ezer onik –desintoxikazio zentroa ez du esango, ez dago prest berba horiek ozenki ahoskatzeko, biek zertaz ari den ondo baino hobeto dakite zehazki aipatu barik ere–; erakutsiko didazu zerbait nire lanaz? Ez dut esango munduko langileena naizenik ere, baina horretara etorri naiz...

—Horrenbesteko presa baduk, goazen, zer egin badiat hiretzat.

Osaba altxatu eta, presa barik, musika kate azpian pilatzen diren biniloetariko bat hartu eta diskojogailuan jarri du. Orratzaren zaratatxoan ondoren doinu klasikoak aireratu dira.

—Mozart. Ez zakiat asko entzun duan...

Josuk barre egin du. Ezin esan dezake gogoko duenik, baina lasaigarria da.

—Mozart entzuteko itxurarik ikusten didazu? Baina zure etxean nago, ez dizut eskatuko Toy Dolls jartzeko.

—Toy Dolls. Batek zakik, izen jostagarria duk, agian egunen baten ezagutu beharko diat.

—Utzi Mozart, hobeto doakizu.

Osabak irribarre egin zuen, baina ematen zuen bere kolkorako gorde zuela prest zeukan erantzuna, eta beste barik, gertu zegoen gelara gidatu zuen. Zalantzarik gabe, hura zen lanerako zerabilena. Ezaugarri bitan zetorren bat ordura arte ikusitako beste guztiarekin: ezin hobeto argizatuta zegoen, eta alferreko gauza guxti zeukan apaintzeko. Funtzionala zen guztiz. Bere izango zuen logelak bezala, moketa higatua zeukan; horrek pasabidean eta egongelan lagun zuten zuraren

kirrinka saihesten zuen. Leihoko argia ondo profita-  
tzeko, haren aurrean mahai zabal eta nahiko nahasia  
zegoen, paper piloek eta karpetek ia ezkutatuta uzten  
zuten flexoa, eta haren atzean, gurpil aulki bat zegoen  
leihoari bizkarra emanda. Eskumatara, goitik behera-  
ko altzairuzko armairu grisa, bulego itxura areagotzen  
zuen, ezkerretara mahai txikiago bat, eta han, fotoko-  
piagailua ere izan zitekeen faxa jaun eta jabe. Ezkerre-  
ko hormaren zati handi bat hartuz, munduko mapa  
erraldoia ikusi zuen. Deigarrienak iltzatuta zeuzkan  
txintxeta koloretsuak egin zitzaizkion. Ez zitzaion  
oharkabean pasatu gehienak Txina eta India gainean  
zeudela. Beste batzuk Venezuelan, Brasilen, Europan,  
AEBn, identifikatu ez zituen Afrikako leku batzuetan...  
Horietan guztietan zituen negozioak, ala?

—Mahaian ikus dezakeanez, lana ez duk faltako.  
Gauza atzeratu asko diat hemen, eta norbaitek ordena  
apur bat ipintzen ez badu, seguruenik eskutitz eta fax  
batzuk garaiz erantzun barik lotuko dituk. Ezkerreko  
multzotik has haiteke, erantzunda daudenak eta ez  
daudenak bereiziz lehenbizi, hori goian idazten baitut  
beti; ostean, erantzun gabekoei heldu, eta dataren ara-  
bera sailkatu. Gaurkoz nahikoa duk horrekin. Bihar  
azalduko diat zelan ordenatu herrialde eta negozio mo-  
taren arabera. Eskumako multzoaz neu arduratuko  
nauk mementoz, horietan lan eta erresidentzia baime-  
nak eta holakoak zaudek. Joango haiz ikasten.

Bai, Josuk ere pentsatu du hasteko nahikoa dela  
ezkerreko multzoarekin. Eta hobe kumeak egiten ha-  
si baino lehen ekitea.

—Artxibo sistemarekin hasteko... uste diat aukera izango dugula, datorren astetik aurrera edo. Horko liburuak bertan utzi, baina gainera irakurri gura badituk, aske haiz, orri markak aldatzen ez dituan bitartean.

Lau liburu zenbatu zituen, oso tankera desberdinekoak, eta paper pilek baino jakin-min handiagoa piztu zioten ikusi orduko.

—Tira, Josu, utzi egin behar haut, mandatu batzuk egitera noak orain. Musikak gogaitzen bahau, kendu, aldatu... Gura duana, baina ez zigortu larregi Lauritaren belarriak. Iluntzean ikusiko diagu elkar.



Hiru ordu, ez da denbora makala. Esku artean bikoizten dira paper alu horiek. Burua nekatzen denean, onena gorputza apur bat jipoitzea. Luismiren berbertan, behintzat. Kami, bukatuta hago. Zer Kami eta zer ostia, kendu ezazu hori burutik, nondik agertu da orain izen malapartatu hori? Badakizu, zelan bestela. Kirik ahoskatu dizu. Hori zorte txarra, ematen du zonbiak hilobietatik altxatzen hasi direla. Denak lurperatuta dituzunean, han hasten dira berdindu berri duzun lurra inarosten, eskua hemendik ateratzen, burua handik. Bost paper ordenatuta burua nekatzen bazaik, ostia gutxi geratzen zaik. Uste dut beti dela horrela: lehenengo ordua erdi galdua, egitekoa sistematizatzen asmatu arte. Bihar hobeto ibiliko zara. *Iron, steel, contract...* hainbeste orri eta ideia putarik ez zer izan duan esku artean, berba horiek baino ez ditik be-

giak harrapatu. Langilearen alienazioa, orain aditzen duk berba potoloa. Josu ohean agondu da. Sukaldetik Lauritaren ahots kantaria iristen zaio. Ez du hitzik harrapatzen, baina flauta barik ere ezagutu du indiarra dela doinua. Irribarre horrek badu zerbait bihotza ez-titan blaitzen duena. Emakumearen aurpegi biribilaren atzean Luismiren bizar zaindua ageri zaio, ezpain artean piparen ke lodia dariola. Arrazoia, gorputza nekarazteko ordua. Luismirengatik izan ez balitz, ahaztuta izango zuen kirolaren esanahia. Hark gogorarazi zion eskolan saskibaloia maite zuela, oso trebea izan ez arren. Orturako jantzi ohi zuen txandala bilatu du motxilan. Ez du inoiz garbi itxura berreskuratuko, ha- maika aldiz garbituagatik, baina horrek aza artean zelako bakea senti daitekeen gogoratzeko balioko dio.

—Bueno, Josu... Ai, barkatu —Laurita atean geratu zen, ez atzera ez aurrera, irribarrea galdu barik.

—Ez esan galtzontziloak politik ez direla.

Lauritak barre egin zuen Josuk txandala janzen bukatu bitartean. Ez zen holako huskeriagatik lotsatuko Josu. Are gehiago, Lauritaren masailetan agertu zen kolorea dibertigarria egin zitzaion.

—Gizonok ez ei dakigu barruko arropa aukeratz- en, ezta zer neurri behar dugun ere. Hauek... amak erosi zizkidan azkenak. Aurrerantzean agian lagundu beharko didazu, emakumeok begi zoliagoa duzue horretarako —eta begia kliskatu zion.

—Nire senarra espetxeratu zutenetik... —eta ma- sailetakoko kolorea biziagotu zitzaion—. Arrazoia duzu, oraindik ere neuk bidaltzen dizkiot galtzontziloak kartzelara. Asmatuko dut zure estiloarekin ere.